

HEZKUNTZA LAGUNTZAKO ESPEZIALISTEN (HLE) ORDUTEGIEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK, HITZARMEN KOLEKTIBO BERRIAREN ARABERA

NORK: ANIZTASUNERAKO ETA INKLUSIORAKO ZUZENDARIAK

NORENTZAT: 2025-26 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK ESLEITUTA DITUZTEN IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARIENTZAT

2024ko abenduan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lan-legepeko **irakasle eta hezitzaileentzako II. hitzarmen kolektiboa** sinatu zen. Hitzarmen horrek jasotzen dituen aldaketen ondorioz, **HLEen ordutegiak** prestatzeko irizpideak aldatu egin dira.

Ordutegien antolaketa errazteko helburuarekin, jakinarazpen hau bidaltzen da, **HLEen ordutegiek bete behar dituzten baldintzen laburpena** jasotzen duena.

Sartzeko eta irteteko ordutegia: ez da beharrezkoa ikasleak sartzeko eta irteteko ordutegiarekin bat etortzea.

30 orduko presentzia astean ikastetxean (% 100eko lanaldia), eta **15 ordukoa** (% 50eko lanaldia)

25 ordu astean zuzeneko arretarako (% 100eko lanaldia), eta **12,5 ordu** (% 50eko lanaldia).

Egunean ordu 1 materialak prestatzeko, koordinatzeko eta beren kategoriako eginkizunetarako (% 100eko lanaldia), **ordu erdi** (% 50eko lanaldia); hauek dira ezaugarriak eta baldintzak:

- **Eguneko une desberdinetan** bana daiteke.
- **Ikastetxean egin behar da beti**, ezin da erabili beranduago sartzeko edo lehenago irteteko.
- **Denbora** hau materiala prestatzeaz gain, klaustroetan parte hartzeko (lan hitzarmenean jasotako baldintzetan), eskolan ematen den formakuntzan parte hartzeko, gainontzeko hezitzaileekin, tutoreekin, PTekin eta gainontzeko profesionalekin koordinatzeko, ziklo, maila eta ebaluazio bileretan parte hartzeko, gurasoekin bilerak egiteko eta orientazio taldeko koordinazio bileretan parte hartzeko erabili daiteke. Koordinazio bezala ere, funtzioei loturiko edozein bileretan parte hartzea ulertuko da.

Lanaldi zatitua edo jarraitua:

- **Ikastetxeek jardunaldi zatitua** dutenean:
 - **HLEak % 100eko lanaldian**, ikastetxeko zuzendariak erabakiko du HLE bakoitzaren lanaldia zatitua edo jarraitua izango den, ikastetxearen beharretara hobeto egokitzen dena kontuan hartuta; horretarako, hauen laguntza izango du: HLBPen aholkulari, tutore, aholkulari edo orientatzaile, pedagogo terapeutiko eta HLE.
 - **HLEak % 50eko lanaldian** izanez gero, lanaldia jarraitua izango da beti.
- **Ikastetxeek jardunaldi jarraitua** dutenean, lanaldia jarraitua izango da beti.

Zerbitzuak ikastetxe batean baino gehiagotan (ibiltaritza):

- **Asteko lanaldiaren zatirik handiena egiten duen ikastetxearen egutegia eta ordutegia hartuko dira kontuan.** Egun berean ikastetxe batetik bestera joateko behar den denbora lanaldiaren barruan zenbatuko da.
- **Lanaldi erdiaren kasuan**, antolaketa-arrazoiengatik beharrezkoa denean, langile horiek gehienez ere bi ikastetxetan egingo dute lan egun desberdinetan.

Zuzendariak erabakiko du **sarrera-ordua, irteera-ordua eta materialak prestatzeko, koordinatzeko eta asteko egun bakoitzeko beste eginkizun batzuetarako eguneko orduen banaketa**, ikasleen eta ikastetxearen beharren arabera, eta HPBko lantalde osoaren iritziak kontuan izanda.

HLEak, lanaldi zatitua izanez gero, 30 eta 90 minutu arteko etenaldia izango du goizaren eta arratsaldearen artean (bazkaltzeko denbora, ez da lan-denboratzat hartzen).

Ikastetxean lanaldi zatituan egoteko ordutegiaren adibideak	
●	9:00-13:00 eta 14:30-16:30 (% 100)
●	9:00-12:30 eta 13:00-15:30 (% 100)

Lanaldi jarraituko HLEak

Ikastetxean lanaldi jarraituan egoteko ordutegiaren adibideak	
●	10:30-16:30 (% 100)
●	9:00-15:00 (% 100)
●	11:00-14:00 (% 50)
●	13:00-16:00 (% 50)
Ikasleen arretarako komeni den edozein ordutegi egin daiteke, betiere 6 ordukoa (% 100) edo 3 ordukoa (% 50)	

Lanaldi jarraitua dutenek, ordaindu gabe gehienez ere 30 minutu hartzeko aukera; lanaldia luzatzea dakar, eta ikastetxeko zuzendariarekin adostuko da ikasturte hasieran. Hau da, langile bakoitzak ikasturte hasieran jakinarazi beharko dio zuzendariari, denbora horretaz baliatuko den edo ez, eta erabakia ikasturte osorako izango da. Denbora horretan, gehienez ere ordaindu gabeko 30 minutu (% 100eko lanaldia) edo 15 minutu (% 50eko lanaldia) hartu ahal izango dituzte (atseden hartzeko, bazkaltzeko...).

Jangelan aritzen diren HLEek:

- Ikaslearen autonomia- eta irisgarritasun-programan ezarrita duten ikasleei soilik ematen diete arreta.
- Ez dute ordaindutako denborarik bazkaltzeko.

Mikel Juaristi Izaguirre
Aniztasunerako eta Inklusiorako zuzendaria